

UZTAILA
27
ABUZTUA
2

Uztailak 31an ilargi
betea

mareak: (Uztailak 27koak)
gora: 00,43 eta 13,22
behera: 06,59 eta 19,36

eguzkia: (Uztailak 27an)
irten: 07,07
sartu: 21,35

(ordulariaren ordutan)

liburuak

Iñaki CAMINO



Egilea: Marguerite Yourcenar.

Titulua: Hadrianoren oroitzapenak.

Argitaletxea: Elkar. Erdal literatura elaberria.25.

Ezaugarriak: 417 orrialde. 800 pta.

17 hizkuntzetara itzuli omen da Adriano erromatarren oroitzapenen bidez bere bizitza kontatzen digun XX. mende erdiko nobela hau, hamazazpigarren hizkuntza euskara delarik. Mundu guztiko inguru literarioetan goretsi da inperioari bakealdi luzea eta arte eta letratarako grina atxeki zion

enperadore honen oroitzapenak hain egiazki eta poetikoki josten jakin duen Margarita Yourcenar.

II. mende inguruan bizi izan zen Adrianok berebiziko inportantzia izan zuen hiri sortzen, legedi berri eta zuzenagoak antolatzen, grekarren filosofia nahiz letretako zuku Erromari txertatzen eta beste hainbat kontutan ere. Marguerite Yourcenar Adrianorengan barneratzen da eta bere oroitzapenak kontatzen ditu poliki poliki bere bizitzako une garrantzizkoak nobelatuz.

Euskarazko itzulpen hau Joxe Austin Arrietak egin da. Jakina, bi arerio nagusi izan ditu nobelista euskaldunak: lexikoa eta menpeko esaldiak. Aurreneko arerioa ez da bigarrena bezain arris-kugarria, euskarak bai baitauzka hitzak orijinalako terminoak ordezkatzeko, bestela mailebuei eutsi. Euskal irakurlea ez omen dago ohiturik hizkuntz konplejotasuna duten liburuak irakurtzen, baina Axularrek aspaldi eman zuen bere iritzia honetaz eta XX. mendean aitzinera egin nahi duen hizkuntzak ez du biderik errazenetik joan behar. Hiztegiak badira.

Bigarrenari dagokionez, zera esan behar da: badirela esaldi luzeak, puntuen artean zortzi bat lerro daukatenak, baina egonarriak eta narratioaren interesak gaintitu beharko dituztenak. Esaldi errelatiboetan azentu bereizgarria jarri du itzultzaileak aditz guztietan irakurkera xamurragoa gerta dadin.

Egilea: Txillardegia.

Titulua: Elsa Scheelen.

Argitaletxea: Elkar. Euskal literatura. Elaberria. 26.

Ezaugarriak: 289 orrialde.

Txillardegik nobelari bezala idatzitako hirugarren lana dugu hau, 69.ean egin. Elsa Scheelen Bruselasen bizi den emakumea dugu, gazte xamarra, ezkondua eta arazo zenbait daukana. Senarrarekin ongi konpondu ez eta antzekoak. Egileak beraz,



arazoak dauzkan XX. mendeko bigarren erdiko emakume baten arazoak eta psikologia adierazi nahi dizkigu. Baina Sarasola kritikorearen ustez pertsonaje hau zail antza edo zaiolako, irtenbide bezala apez bat tartean sartuko du, bere nobelan zehar nagusi gertatzeraino. Ondorioz, nobela bat baino, bi direla dio Sarasolak.

Elsa Scheelen bi aurrenak baino nobela lortuagotzat daukate gehienek, hau idazten duenak horrela uste ez badu ere. Elsari dagokion narrazioa motelagotzen den ber, apezarena sartzen da eta gauzak hobeki doaz, hobe moldatzen da egilea pertsonajetaz apeza hartuz.

Aipatzekoa da ere, eta beti Sarasolari jarraiki, beste bi nobeletan narradorea pertsonajea bera baldin bazen (Txillardegiren nobelagintza ikasi dugunok ez dugu besterik entzun eskolan), hirugarren honetan tradiziozko narradore-egilearengana itzultzen dela Txillardegia.

Bukatzeko, nobelan erabiltzen den euskara oso go-rtesia izan dela aitatu.

Egilea: Hizkuntz batzordea. Euskaltzaindia.

Titulua: Euskal gramatika. Lehen urratsak.

Argitaletxea: Principe de Viana. Euskaltzaindia.

Ezaugarriak: 518 orrialde.

Morfosintaxi gaiak dira euskara batuak erabaki gabe

dituen artean nagusienetakoak. Bazen dena den alerik: Goenagaren gramatika, Txillardegirena, inork inoiz arbitrarioki eman eta zabaldua-ko lege fantasmak...

Argi zegoen alde horretatik ere hasi behar zela lanean eta horretarako osatu zen Euskaltzaindiaren barnean ha- maika laguneko taldea. Ger- roztik, astero bilduz eta ba- koitzak gai bati ekinez, lan handia egin da, hasiera beste- rik ez den arren; baina badu bereizkuntza bat: lan ongi egin dugu hau, egiazkoa, az- ken bi mendeetako euskal autoreak arakatu eta hustuz, errealdadezko hizkuntzari sasiteoriak alde zurretik ezarri gabe. Seriotasun hori da beharbada motelatasuna esplikatzeko duena. Taldeak eginak daude eta jendea la- nean ari da ederki. Aurreneko



liburua atera da, lehen urratsak, esaldi bakunari dagoz- kion lehen urratsak, hitz el- karketak, aditza eta galdegaia ez beste, esaldi bakuna goitik behera sistematizatzen da li- buruan. Deklinabidea adibi- dez, hobetzeko omen dago. Euskarak dituen ondasunak biltzen ihardun dira, bere mugak eta legeak ere azalduz, ahalik eta sinpleen aditzera emateko. Lehen urrats hone- tan beraz, esaldi bakuneko izen sintagma, deklinabidea, adberbioa eta interjekzioak nola behar duten esaten da.

Orain arte burukomin iraunkor izandako zalantza (zertako/ zertarako; laue- tan/lauretan; oso/ asko/ handi; seiak arte/ seietara; batzu/ batzuk; neroni/ni) nola dauden ongi eta zergatik dauden hobeto azaltzen digu